

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

GIZARTE POLITIKETAKO DEPARTAMENTUA

Maiatzaren 27ko 397/2020 Foru Agindua, Gizarte Politiketako Departamentuko foru diputatuarena, zeinaren bidez arautzen baitira Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasun egoeran dauden adineko pertsonentzako baimentutako egoitza-zentroetan Covid-19ak eragindako osasun krisiak dirauen bitartean egin daitezkeen bisitak.

2020ko urtarrilaren 30ean, Nazioarteko Osasun Erregelamenduen Larraldietako Batzordearen gomendioz, Munduko Osasun Erakunde zuzendari nagusiak koronabirus 2019 (nCoV) delakoaren sorrera Nazioarteko Garrantzizko Osasun Publikoko Larralditzat jo zuen.

Horren ondorioz, Eusko Jaurlaritzako Segurtasuneko sailburuak 2020ko martxoaren 13ko Agindua eman zuen, zeinaren bidez formalki aktibatzen baita Euskadiko Babes Zibileko Plana, Larraldiari Aurregiteko Bidea-Labi izeneko plana.

Bere aldetik, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez, alarma-egoera deklaratu zen Covid-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko (*Estatuko Aldizkari Ofiziala*, 67. zk., 2020ko martxoaren 14koa); hau da, alarma-egoera deklaratu zen Estatuko lurralde osoan, Covid-19ak edo koronabirusak eragindako osasun-larrialdiari aurre egiteko.

Apirilaren 1ean Osasuneko sailburuaren 2020ko martxoaren 27ko Agindua argitaratu zen; haren bidez, batetik, ezagutarazi eta interpretatu egiten dira martxoaren 23ko SND/275/2020 eta martxoaren 19ko SND/265/2020 aginduetan jasotako neurriak, Euskal Autonomia Erkidegoko titulartasun publiko zein pribatuko gizarte-zerbitzuetako egoitza-zentro guztietarako direnak, eta, bestetik, bi agindu horien garapenean esku hartzekoneurriak hartzen dira. Martxoaren 27ko aginduaren hirugarren apartatuan, baimena ematen zaie Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiek gizarte-zerbitzuen arloan dituzten organo eskudunei, aginduotako neurriak euskal eskumen-esparruan aplikatu ditzaten.

Covid-19ak eragindako osasun krisiari aurre egiteko, Diputatuen Kontseiluak 2020ko martxoaren 24ko bileran hartutako erabakiaren bidez, gizarte politiken arloko txoke plana onartu zuen. Planaren helburuetako bat da egoiliarren senideei eta hurbilekoei jakinaraztea osasun larrialdiari erantzuteko hartzen diren neurriak.

Era berean, aipatutako erabakiaren bigarren puntuan aurreikusitakoarekin bat etorritik, Gizarte Politiketako Departamentuko foru diputatuari ahalmena ematen zaio txoke plana behar bezala gauzatzeko beharrezkoak diren egintza, erabaki eta ebazpen guztiak hartzeko.

Euste-neurrien ondorioz pandemia izaten ari den eboluzio positiboa dela-eta arintze orokor bati ekin zaionez, eta kontuan hartuta pertsonentzat eta, bereziki, adinekoentzat bakardadea eta bakartze soziala arrisku-faktore bat direla eta depresioa, na-

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE POLÍTICAS SOCIALES

Orden Foral 397/2020 de 27 de mayo, de la diputada foral del Departamento de Políticas Sociales, por la que se regulan las visitas a centros residenciales autorizados para personas mayores en situación de dependencia del Territorio Histórico de Gipuzkoa durante la crisis sanitaria del Covid-19.

Con fecha 30 de enero de 2020 y por recomendación del Comité de Emergencias del Reglamento Sanitario Internacional, el Director General de la Organización Mundial de la Salud declaró el brote del nuevo coronavirus 2019 (nCoV) como una Emergencia de Salud Pública de Importancia Internacional (ESPII).

Consecuencia de ello, mediante Orden de 13 de marzo de 2020, de la Consejera de Seguridad del Gobierno Vasco, se procedió a la activación formal del Plan de Protección Civil de Euskadi, Larrialdiari Aurregiteko Bidea-Labi.

Por su parte, el Real Decreto 463/2020, de 14 de marzo, por el que se declara el estado de alarma para la gestión de la situación de crisis sanitaria ocasionada por el Covid-19, publicado en el *Boletín Oficial del Estado* núm. 67, de 14 de marzo de 2020, declaró el estado de alarma en todo el territorio del estado, con el fin de afrontar la situación de emergencia sanitaria provocada por el coronavirus Covid-19.

El 1 de abril se publicó la Orden de 27 de marzo de la Consejera de Salud, de difusión e interpretación de las medidas contenidas en la Orden SND/275/2020, de 23 de marzo, y en la Orden SND/265/2020, de 19 de marzo, para todos los centros de servicios de carácter residencial de titularidad pública o privada de la Comunidad Autónoma del País Vasco, así como la adopción de medidas de intervención en desarrollo de las citadas ordenes y en su apartado tercero se autoriza a los órganos competentes en materia de servicios sociales de las Diputaciones Forales de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa para que en el marco competencial vasco, apliquen las medidas establecidas en las citadas ordenes.

Por último, en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Gipuzkoa, el Consejo de Gobierno Foral, mediante acuerdo adoptado en su reunión de 24 de marzo de 2020, aprobó el Plan de choque en materia de políticas sociales. Uno de los objetivos del plan es informar a familiares y allegados de las personas residentes de las medidas que se adoptan para dar respuesta a la situación de emergencia sanitaria.

Así mismo, de conformidad con lo previsto en el punto segundo del mencionado acuerdo, se faculta a la diputada foral del Departamento de Políticas Sociales para adoptar cuantos actos, decisiones y resoluciones sean necesarias para la correcta ejecución del Plan de choque.

Dado la positiva evolución de la contención de la pandemia, el inicio de una desescalada general en todos los ámbitos y teniendo en cuenta que la soledad y el aislamiento social de las personas y en especial de las personas mayores puede constituir

riadura kognitiboa, morbilitatea eta heriotza eragin ditzaketela, arau berriak ezarri behar dira bisitetarako, egoera berrira egokituta.

Senideekin edo hurbilekoekin harremanetan egotea eskubidea eta beharrezkoa da edozein zentrotako egoiliarren kasuan. Horrez gainera, adinekoen eta/edo desgaitasuna dutenen eta haien hurrekoen sufrimendua eta narriadura psikologikoa prebenitzeko neurri bat da, birusaren hedapena eragozteko hartutako neurrien ondorioz.

SND 440/2020 Aginduak, maiatzaren 23koak, bosgarren artikuluko bi atalean ezartzen duenez, foru aldundiek bisitak egiteko baimena eman dezakete; hala ezartzen du, orobat, 12/2020 Dekretuak, maiatzaren 24koak, Lehendakariarenak, hirugarren artikuluan.

Ondorio horietarako, helburutzat hartuta Gipuzkoako Lurralde Historikoko adineko pertsonentzako egoitza-zentroetan senideen edo hurbileko pertsonen bisitak ahalbidetzea, Gizarte Politiketako Departamentuak jarraibide orokor batzuk prestatu ditu, bat etorrira Gizarte Zerbitzuen Konfinamendua Arintzeko Planarekin, zeinaren helburua baita, besteak beste, pixkanaka berreskuratzea foru eskumeneko zerbitzuen prestazioa.

Hala, konfinamendua arintzeko 2. fasean, salbuespenez baimendu dira bizitzaren amaierako egoiliarrei bisita humanitarioak egitea, eta deskonpentsazio neurokognitiboa arintzeko bisitak egitea ez kasu positiborik ez susmagarririk ez duten zentrotako egoiliarrei.

Honaino iritsita, konfinamendua arintzeko 3. faseari begira, datorren ekainaren 8an hasiko baita, urrats bat gehiago egin behar da, eta bisitak baimentzeko araubide berri bat ezarri behar da, zeina garatuko baita foru agindu honetan aurreikusitako eran.

Aurrekoagatik, eta erabiliz, alde batetik, foru antolamenduko arautegiak emandako eskuduntzak, eta bestetik, Diputatu Kontseiluak 2020ko martxoaren 24ko bilkuran hartutako erabakiak bigarren puntuan ematen dizkion ahalmenak,

XEDATZEN DU

Lehenengo. Baimentzea senideek edo hurbileko pertsonen bisitak egitea Gipuzkoako Lurralde Historikoko mendekotasun egoeran dauden adineko pertsonentzako baimendutako egoitza-zentroetan daudenei.

Bigarren. Covid-19aren kasu positibo aktiborik ez duten zentroetan bakarrik egin ahal izango dira senideen edo hurbileko pertsonen bisitak adineko pertsonentzako egoitza-zentroetan.

Nahiz eta egoitza-zentroak Covid-19aren kasu positibo aktiborik ez eduki, ezingo zaie bisitarik egin bakartze egoeran edo berrogeialdian dauden erabiltzaileei.

Salbuespen gisa, bisitak baimendu daitezke, baldin eta egoera hauetakoren bat gertatzen bada:

a) Bizitzaren amaierako zainketak. Bizitzaren amaierako zainketa joko dira agoniaren unea ez ezik, baita egoera terminala ere, halako eran non posible den afektuak adieraztea eta konpontzeke dauden kontuak konpontzea, ezinbesteko ekintzak baitira horiek ondo hiltzeko.

b) Egoera kognitiboak, zeintzuek eragozten baitute egoera ulertzea edo senideekin nahiz hurbileko pertsonekin kontaktua izateko beste moduko batzuk erabiltzea.

c) Egoera psikoemotionalak, zeintzuetan profesionalak irizten baitiote saihestu behar dela gizarte bakartzeak egoiliarren ongizateari eragiten dion kaltea.

Aurreko kasuetarako, baldin eta, egoiliarrek positibo emango balu Covid-19aren probetan, edo berrogeialdian balego, bisitariek

un factor de riesgo conducente a la depresión, el deterioro cognitivo, la morbilidad y la mortalidad, procede aprobar una nueva regulación de las visitas más acorde con la nueva realidad.

El contacto con la familia o las personas más próximas es un derecho y una necesidad de las personas residentes en cualquier tipo de centro. Constituye además una medida de prevención del sufrimiento y deterioro psicológico de las personas mayores y/o con discapacidad y de sus personas allegadas, como consecuencia de las medidas tomadas para prevenir la transmisión del virus.

La Orden SND 440/2020, de 23 de mayo, establece en el artículo quinto-dos, que se podrán permitir la realización de visitas, por las Diputaciones Forales, tal y como determina el Decreto del Lehendakari 12/2020, de 24 de mayo, en su artículo tercero.

A tales efectos, con el fin de hacer posibles las visitas de familiares y/o personas allegadas en centros residenciales para personas mayores del Territorio Histórico de Gipuzkoa, el Departamento de Políticas Sociales ha elaborado unas Pautas generales que han sido adoptadas de conformidad con el Plan de Desescalada de Servicios Sociales. cuyo objetivo, entre otros, es la recuperación paulatina en la prestación de los servicios de competencia foral.

Así, durante la fase 2 de desescalada, se han autorizado excepcionalmente visitas humanitarias a residentes al final de la vida, o visitas para el alivio de la descompensación neurocognitiva de personas residentes en centros sin casos positivos ni sospechosos.

Llegados a este punto, cara a la fase 3 de desescalada que comenzará el próximo 8 de junio, procede dar un paso más y regular un nuevo régimen de autorización de visitas que ese desarrollará en los términos previstos en la presente orden foral.

Por cuanto antecede, en uso de las atribuciones conferidas por la normativa de organización foral y las facultades que le confiere el punto segundo del acuerdo adoptado por el Consejo de Gobierno Foral en sesión de 24 de marzo de 2020,

DISPONE

Primero. Autorizar las visitas de familiares y/o personas allegadas en centros residenciales para personas mayores en situación de dependencia autorizados del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Segundo. Las visitas de familiares y/o personas allegadas en centros residenciales para personas mayores sólo podrán realizarse en aquellos centros que no tengan casos positivos activos de Covid-19.

Aun en el caso de que el centro residencial no tenga casos positivos activos de Covid-19, no se podrá visitar a las personas usuarias que se encuentren en situación de aislamiento o en período de cuarentena.

Excepcionalmente, podrán autorizarse las visitas cuando concurra alguna de las siguientes situaciones:

a) Cuidados al final de la vida. Se entenderá cuidados al final de la vida no solo el momento de la agonía, sino la situación terminal, de manera que sea posible la expresión de los afectos y la resolución de asuntos pendientes, acciones tan necesarias para un buen morir.

b) Situaciones cognitivas que imposibiliten la comprensión de la situación y/o el uso de medios alternativos de contacto con familiares y/o personas allegadas.

c) Situaciones psico-emocionales donde los/las profesionales consideren que el perjuicio para el bienestar de la persona residente derivado del aislamiento social debe evitarse.

Para los supuestos anteriores, si la persona residente diera resultado positivo en las pruebas de Covid-19 o se encontrara

norbera babesteko ekipamendu osoak erabili beharko lituzkete, maskararekin, eskularrekin, pantailarekin, oinetako estalkiekin, eta mantalarekin.

Hirugarren. Zentro bakoitzak dokumentu bat prestatuko du, bisitetarako protokolo xehea izango duena, zentroaren egitura eta ezaugarri jakinei egokitua. Orobat edukiko ditu birusa bisitariak egoiliarri edo alderantziz transmititzea saihesteko hartu behar diren neurriak.

Dokumentu hori zentroko zuzendaritza-organoak onetsi beharko du, eta Gizarte Politiketako Departamentuko Ikuskapeneko, Inbertsioetako eta Gizarte Ekimeneko Zerbitzura bidali beharko du, informazio ondorio hutsetarako.

Laugarren. Bisitak egiteko prozedura orokorra hau izango da, hargatik eragotzi gabe zentro bakoitzeko protokoloan ezarzen dena:

a) Zentroko arduradun batek gainbegiratu du higiene arauen aplikazioa eta ezarritako babesen erabilera; tenperatura hartuko du; eta bisitariari galdetuko dio ea Covid-19arekin zerkusia duen sintomarik daukan, eta baiezkoan, bisita eten egingo da.

b) Ordutegiak programatzerakoan, bisitarien arteko gurutaketa saihesteko moduan egin beharko da.

c) Ibilbidea ondo seinaleztatuta egongo da, edo zentroko profesionalen konpainiarekin egingo da, eta ez da gurutzatuko egoiliarren zirkulazioko zirkuituekin.

d) Zentroko osasun langileek ezarriko dute, kasuan-kasuan, zer prozedurari jarraitu behar zaion infekzio arriskua txikiagotzeko.

e) Sarreran, gel hidroalkoholikoaren banagailu bat egongo da, eta infografia bat, eskuak desinfektatzeko metodo egokia izango duena. Eskuak bisitaren aurretik eta ondoren desinfektatuko dira.

f) Bisitaren aurretik jakinaraziko da zer higiene-arau errespetatu behar diren, non dagoen elkargunea eta nola iritsi behar den horra.

g) Egoiliarrak nahiz bisitariak uki ditzakeen altzariak desinfektatu egingo dira bi bisitaren artean.

Bosgarren. Baldintza orokorrak hauek izango dira, hargatik eragotzi gabe zentro bakoitzeko protokoloan ezartzen direnak, zeintzuk bermatu beharko baitira senideen edo hurbileko pertsonen bisitak aurrera eramateko:

a) Bisitak alde zuzeneko hitzorduekin programatu beharko dira, eta hitzordua egoitza-zentroan hitzartuko da.

b) Egoiliar bakoitzeko, bisita bat ahalbidetuko da, bost egunean behin. Bisiten maiztasun eta aniztasun handiagoak baimendu ahal izango dira, kontuan hartuta egoiliarraren zirkunstantzia pertsonalak, lotura, eta osasun larrialdia deklaratu aurreko dinamika.

c) Konfinamendua arintzeko 3. fasean, pertsona bakar baten bisita bakarrik baimendu ahal izango da. 4. fasean, berriz, bi senidek ere egin ahal izango dituzte bisitak aldi berean.

d) Salbuespenezko zirkunstantzia batean izan ezik, zeina egoitza-zentroak balioetsiko baitu, bisitaria pertsona bera izango da beti.

e) Bisitariak ez du Covid-19az kutsatuta egon behar, ez eta susmagarritasun egoeran ere, gaixotasun horrekin bateragarriak diren sintomak agertzeagatik.

f) Bisitariak babes neurri guztiak aplikatu beharko ditu, bere segurtasuna nahiz egoiliarrarena bermatzeko: tenperatura hartzea, eskuak garbitzea bisitaren aurretik eta ondoren, oinetakoak desinfektatzea, pertsonen artean gutxienez bi metroko tartea gordetzea, eta maskara kirurgikoa erabiltzea.

g) Bisitariaren tenperaturak 37.º C gainditzen badu, ezingo da baimendu bisita.

en período de cuarentena, las personas visitantes deberán utilizar equipos de protección individual completos con mascarilla, guantes, pantalón, calcas y bata.

Tercero. Cada centro elaborará un documento con el protocolo detallado para las visitas, adaptado a la estructura y características concretas del centro, conteniendo las medidas necesarias para evitar la transmisión del virus entre la persona visitante y la residente, y a la inversa.

Este documento deberá ser aprobado por el órgano directivo del centro, y deberá ser remitido al Servicio de Inspección, Inversiones e Iniciativa Social del Departamento de Políticas Sociales, a los solos efectos informativos.

Cuarto. El procedimiento general para la realización de las visitas, sin perjuicio del que se establezca en el protocolo de cada centro, será el siguiente:

a) Una persona responsable del centro supervisará la aplicación de las normas de higiene y el uso de las protecciones establecidas, tomará la temperatura, y preguntará a la persona visitante si presenta síntomas relacionados con el Covid-19, en cuyo caso se suspenderá la visita.

b) Los horarios deberán programarse de forma que se evite el cruce físico entre personas visitantes.

c) El recorrido estará bien señalizado, o se hará en compañía de profesionales del centro, y no se cruzará con circuitos de circulación de las personas residentes.

d) El personal sanitario del centro establecerá para cada caso concreto el procedimiento a seguir para minimizar el riesgo de infección.

e) En la entrada se ubicará un dispensador de gel hidroalcohólico y una infografía con el método adecuado para desinfectar las manos, lo que se hará antes y después de la visita.

f) Previamente a la visita se informará de las normas de higiene a respetar, de la ubicación del lugar del encuentro y la forma de acceder al mismo.

g) El mobiliario que puedan tocar tanto la persona residente como la visitante será desinfectado entre visita y visita.

Quinto. Las condiciones generales, sin perjuicio de las que se establezcan en el protocolo de cada centro, que se deben garantizar para el desarrollo de las visitas de familiares y/o personas allegadas serán las siguientes:

a) Las visitas deberán ser programadas mediante cita previa que será concertada con el centro residencial.

b) Se posibilitará, al menos, una visita por residente cada cinco días. Podrán autorizarse mayores frecuencias y diversidad de las visitas en función de las circunstancias personales de la persona residente, vínculo y dinámica previa a la declaración de emergencia sanitaria.

c) Durante la fase 3 de descalonamiento, sólo podrá autorizarse la visita de una única persona. Durante la fase 4, podrán realizar las visitas hasta dos familiares al mismo tiempo.

d) Salvo circunstancia excepcional que será valorada por el centro residencial, la persona visitante será siempre la misma persona.

e) La persona visitante no deberá estar infectada ni en situación de sospecha por presentar síntomas compatibles con el Covid-19.

f) La persona visitante deberá aplicar todas las medidas de protección que garanticen tanto su seguridad como la de la persona residente: toma de la temperatura, lavado de manos antes y después de la visita, desinfección de calzado, mantenimiento de la distancia interpersonal mínima de dos metros y uso de mascarilla quirúrgica.

g) Si la temperatura de la persona visitante supera los 37.º C, no podrá autorizarse la visita.

h) Bisitak, ahal izanez gero, bizitzeko zonatik kanpo egingo dira, egoiarraren gela saihestuz, non eta ezinbesteko kasuak ez dauden tartean.

i) Egoiarraren segurtasuna babestearren, bisitak dirauen denboran, bisitariak gorde beharko du pertsonen artean gutxienez gorde behar den bi metroko tarte, bai senidearen eta erabiltzailearen artean, bai senide desberdinen eta erabiltzaileen artean. Horretarako, ezingo da kontaktu fisikorik egon bisitarien eta egoiarraren artean.

j) Bisitariak objekturen bat entregatu nahi badu, zentroari jakinaraziko dio, eta berak esango dio non utzi behar duen, desinfektatua izateko aukera egon dadin, egoiarrari entregatu aurretik.

Seigarren. Neurri horiek Covid-19 pandemiaren bilakaeraren mende geratzen dira, eta handitu, murriztu edo deuseztatu egin daitezke, epidemia-egoerak hala eskatzen badu, Gizarte Politiketako foru diputatuaren foru agindu bidez.

Zazpigarren. Foru agindu honek 2020ko ekainaren 8tik aurrera izango ditu ondorioak.

Zortzigarren. Agintzea foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitara dadila.

Behar diren ondorioetarako argitaratzen da.

Donostia, 2020ko ekainaren 1a.—M.^a Socorro Equiza Equiza, Departamentuko idazkari teknikoa. (2426)

h) Las visitas se realizarán, en la medida de lo posible, fuera de la zona de habitabilidad, evitando la habitación de la persona residente, excepto si median causas de fuerza mayor.

i) Con el fin de salvaguardar la seguridad de las personas residentes, durante el tiempo que dure la visita, la persona visitante deberá guardar la distancia interpersonal de seguridad de al menos 2 metros, tanto entre el familiar y la persona usuaria, como entre los diferentes familiares y personas usuarias. A tal fin, no podrá existir contacto físico entre la persona visitante y la residente.

j) Si la persona visitante quisiera entregar algún objeto lo comunicará al centro, que le informará dónde depositarlo para que pueda ser desinfectado antes de entregárselo a la persona residente.

Sexto. Estas medidas quedan sujetas a la evolución de la pandemia del Covid-19, pudiendo ser ampliadas, restringidas o anuladas si la situación epidémica así lo exigiere, mediante orden foral de la diputada foral de Políticas Sociales.

Séptimo. La presente orden foral producirá efectos el 8 de junio de 2020.

Octavo. Ordenar la publicación de la presente orden foral en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Lo que se publica a los efectos oportunos.

San Sebastián, a 1 de junio de 2020.—La secretaria técnica del Departamento, M.^a Socorro Equiza Equiza. (2426)